

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Pobretze intelektual eta moral induzitua

Bueno, pues molt bé, pues adios. Horrela iharde-tsi zion polizia buruak gazteleraz hitz egiteko eskatu zion kazetari espainolari. Oihartzun handia izan dute hitzok eta asko goraipatu da mossoen buruak adierazitako tinkotasuna hizkuntza hautuari dagokionez. Hizkuntza hau-tuaz harago, Josep Lluís Traperó deritzan gizonaren jarre-ra –polizia burua izateagatik miresten zaila zaigun arren– Kataluniak atentatuen ostean adierazi duen autokontzientziaren eta heldutasunaren adibide ona delakoan nago.

Esaten denez Kataluniak estatu gisa jardun du ordu ba-tzuez, eta horrek, batez ere, esan nahi du administrazio ka-talanak territorioaren kontrol efektiboa izan duela krisiak iraun duen egunetan. Besteak beste, poliziaren jarduna –ez-tabaidatua, bestetik, atentatuaren ustezko egileak hil izana-gatik– eta gertaeren inguruan emandako informazio ofizia-laren gardentasuna eta zuzentasuna nabarmendu dira. Baina ez hori bakarrik, bi errealitate oso ezberdin urgaine-ratu dira gertaeroi aurre egite-ko moldeetan, bi kultura poli-tiko erabat ezberdin shock emozional eta soziala kudea-tzeko moduetan: Katalunia vs Espainia.

Katalanek, egoeraren kude-aketa tekniko eraginkor bat egiteaz gain, oro har, erreakzio sozial pausatua izan dute. Atentatuaren bortitzak ez du drama humano honen kon-plexutasuna estali, eta, mani-keismotik urrun, begirada mindu sakon bat eskaini digute hala hilotzen irudiak azale-an zekartzaten egunkariak saltzeari uko egin dioten kioske-roek zein atentatuaren ustezko egileak ezagutu zituen hezi-tzaile sozialak, kasurako. Eztabaida politikoa ere nahikotasunezko mailara iritsi da hitzez eta ekintzez; erre-akzio xenofoboek ateak itxi zaizkie irmo, eta shock egoera betean gertaeron oinarrian dauden arrazoi politiko eta eko-nomikoen gaineko ahotsak entzun dira hain ohituak gau-den doktrina moralisten gainetik. Idealizatu gabe, bestela-korik ere egongo baitzen, uste dut oro har Kataluniak kultura demokratiko aurreratu bat erakutsi duela egoera honi aurre egiteko orduan, eta errealitate kultural, sozial eta politiko berezitu gisa nabarmendu dela espainolen be-tiereko zabarkeriaren aurrean.

Eta inbidia sentitu dut, Euskal Herria oso atzenduta ikus-ten baitut, espainolizatuta erabat. Eztabaida politikoaren banalizazioa, arerioaren desprestigioa eta karikaturizazioa,

komunikabide publikoen erabilpen partidista, edota epe motzeko interes politikoen nagusigoa ohikoak dira gurean. Ez nuke nahi nik ere kritika politiko baldarra egiterik, baina uste dut nabarmena dela Urkullu buru duen EAJren ildo po-litikoa dela panorama horren iturri emankorrena. Izan ere, EAJk autokonplazentzia instalatzen du herri hau, bere po-tentzialitateak autoinibitzera eramanez; PSE eta PP makulu gisa hartuz elektoralki minorizatu den espainolismoari ar-nasketa lagundua ematen dio, euskal soziologia artifiziarki itxuraldatuz; Madril erreferentzia bakartzat hartuz politika publiko sozialki aurreratuak garatzeko bideak moztzen ditu, euskal garapen eredu baten paradigma ezinezko eginez; baina, nire ustez larriena dena, pobrezia intelektual eta mo-ralaren bideetan barrena garamatza.

Azken aste honi erreparatuz gero, turismo ereduaren ez-tabaidaren harira zenbait arduradun instituzionalen eta ka-zetariren erreakzioak negarrari emateko modukoak iruditu zaizkit: Urkulluren beraren txioak EH Bildu Donostiako os-

Kataluniak atentatuen ostean adierazi duen autokontzientziaren eta heldutasuna ikusita, inbidia sentitu dut, Euskal Herria oso atzenduta ikusten baitut

talarien elkartearekin bildu ondoren –*Seguro que Arnaldo Otegi y delegación que se ha reunido con hosteleros de Gipuzkoa, además de hacer turismo, leerán prensa internacional*–; Gipuzkoako Ogasun Diputatua Sorturi eskatuz eraso-ak eten eta bazterrak nahastu ez ditzala, globala den errealitate baten gaineko eztabaida politikoa gutxietsiz eta alderdien arteko liskarren terminoetan kokatuz; Javier Viz-cainoren txio erdeinagarria –*Infieles y turistas, doblemente asesinales*–; Zarauzko PSEko zinegotziarenari ez diot ize-nondo aproposik aurkitu.

Egunotan Kirmen Uriberen “Elkarrekin esnatzeko ordua” eleberria irakurri dut, eta aukera izan dut Agirre lehendaka-ria –eta haren inguruan ibili ziren zenbait– gertuagotik eza-gutzeko. Nire buruari galdetzen diot zer pentsatuko lukeen Euskal Herriari aurrerabiderik eskaini ezinik akituta hil zen abertzaletasun historikoaren belaunaldi hark gaurko po-bretze intelektual eta moral induzitu honetaz. •